

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

33/2020 TXOSTENA

Espediente tramitatuak: Idazkaritza saila

Gaia: Herri barruko posta zerbitzuaren kontratua aldatzea

Espediente zenbakia: IDA_DEK0484 (2020)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundearen Izaera Nazionalerako Gaiakuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektorerako Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
<p>Espedientean:</p> <p>Kontratua indarrean dago</p> <p>Aldaketaren interes publikoa justifikatu da eta aldeko proposamen tekniko dago</p> <p>Aldaketa ez da pleguetan aurreikusi</p> <p>Justifikatutako arrazoia legez ezarrita dago</p> <p>Ezinbestekoan bakarrik proposatzen da aldaketa</p> <p>Derrigorrezkoak dira (%20ra arte) /kontratistaren idatzizko oniritzia dago</p> <p>Proposamenean:</p> <p>Organo eskumenduna zuzena da</p> <p>Formalizatu behar da</p> <p>Kontratugilearen profileen argitaratuko da (207.4)</p>	<p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p>	
Ondorioa	Oharrak	
<p>X Aldeko txostena oharrekin</p>	<p>Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. Xedapen Gehigarriaren arabera kontratazioko epeen etetea altxatu da, beraz, egokitu proposamena egoera berrira.</p> <p>Txosten hau Sektorerako Kontratuen 9/2017 Legearen 203-207 eta 335.2</p>	



artikuluetan zehaztutakoa kontuan hartuz egin da.¹

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2020ko maiatzaren 14an
Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkari nagusia

Orri oinean sinatzailea eta data

¹Sektore Publiko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikulua. Kontratua aldatzeko ahala.

1. Kontratataren ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua egikaritzeko epea luzatzeari buruz lege honetan aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, administrazio-kontratuak soilik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko dira, eta azpiatal honetan aurreikusitako moduan, 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz betiere, 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

2. Kontratazio-organoeak egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan;

b) Aparteko kasuetan, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 205. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.

Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da eta beste bat egingo da kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, lizitazio publiko berri baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, lege honetan ezarritakoari jarraituz, eta alde batera utzi gabe segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu publikoaren arrazoiengatik edo hondamen arriskuagatik beharrezkoak



diren neurriak hartzeko kontratistak duen betebeharrari dagokionez 213. artikularen 6. apartatuan xedatutakoa.

3. Kontratu-aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraituz argitaratu beharko dira.

205. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak.

1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) Justifikazioa izatea artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.

b) Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzera.

2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikulua honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:

a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:

1.a Kontratistaz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoak bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatistaz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handizat hartuko kontratatistaz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

b) Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.a Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.



2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.

3.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

c) Aldaketak funtsezkoak ez izatea. Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.

Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratistari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zizaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuen kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuen kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea. (

(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.



206. artikulua. Kontratu-aldaketen nahitaezkotasuna.

1. 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, berekin dakartenean, bakarka edo osotara, kontratuaren hasierako prezioaren zenbatekoa ehuneko 20 edo hortik behera aldaraztea, BEZik gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio-organoak aldaketa hori egitea erabakitzeko, idatzizko adostasuna adierazi behar du kontratistak aurrez; bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, 211. artikulua 1. apartatuaren g) letran ezarritakoari jarraituz.

207. artikulua. Prozedurako berezitasunak.

1. Lege honen 204. artikuluan aurreikusitako kasuan, kontratu-aldaketak administrazio klausula partikularren agirietan zehaztutako moduan egingo dira.

2. Kontratua 205. artikuluari jarraituz aldatu aurretik, entzun egin beharko zaio proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek idatzi baditu, zerbitzu kontratu baten ondorioz. Hala, hiru eguneko edo gehiagoko epean, egokitzen jotzen dituen oharra egin ahalko ditu.

...

4. 191. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten 191. artikuluan ezarritakoa.

